

## "LENENGO XENPELAR SARIA", ANTONIO VALVERDE, "AYALDE" ZANAREN OMENEZ.

### LOREILLA 16 - "ON BIDE" ANTZOKIAN

Errenderiko Udal-Erxeak eratu eta «DONOSTI'KO CAJA DE AHORROS MUNICIPALA' ren» LAGUNTZAREKI n.

«Ayalde'rekin» giñan, Xenpelar'en eriotzaren eun urte betetzerakoan, bere omenez eratu genituan jai aldietan. Egun aietan, nolako elkar-izketa mamitsu ta sakonak izan giñuzen. Gai asko erabiltzen genituan, eta aietako bat auxe izan zan: bere ustez bertsolari berriak, aukera gutxi izaten zituztela beren bertsoak jendeari adierazi eta azaltzeko. Bertsolari berriak bear genitula nai ta nai ez, aurrerantzean ere, Euskal-errian bukatu ez zedin cusdegun doai berezi au.

Bere asmorik sutsuena gai ontaz, bertsolari gazte berezi aueri, aukera ori ematea.

Bañan asmo eder au ezin aurrera eraman izan zuan. Bear bearrezkoa genduanean, betirako utzi ginduan.

Bere lagunok, asmo ura jaso ta guretzat arturik, «Bertsolari gazteen lenengo Xenpelar saria» eratu ta antolatu genuen. Uste degu pozik egongo zala, bildu ziran ogeita bat bertsolari gazte aien saio bikaña zero goitik entzunaz.

Jai aldía onela joan zan:

Mikel Ugalde aurkezlaria izanez, itz aukin asiera eman zion:

«Jaun andreak, Jainkoak egun on deizutela. «Xenpelar» lar» eta «Ayalde» ren izenak elkartuak dauzkagu. Biek » euskal seme jatorrak. Biek, euskera eta bertsolaritza » bere muinean eta odolean zeramatenak. Biek Euskal- » -erriari eskeini izan zioten izate osoa, bizitzaren udaberri » bete betean. Bañan, bi Errenderiar langille auen doaiak » bear bezela aipatzeak, luze joko luke. Orregatik ber-



» tsolari gazte auk eskeini lezaioteke goratzarrerik aun-  
 » diena. Been artean Errenderiar bertsolari bat degu: izan  
 » dedilla bera, emen gauden entzule eta bertsolariei agurra  
 » egin dezaiguna. Jose Luis Oyarzabal da gure erritar ber-  
 » tsolari au.»

Ogeita bat bertsolariak ekin zioten saioari. Lenengo bakanketa egiteko, bakoitzak iru bertso zituzten: bi, emandako gaiari jarraituaz, irugarrena, asiera edo puntua emanda.

Bigarren saiorako, zortzi auk gelditu ziran:

Pedro Aizpurua - Nicolas Zendoya - Eusebio Alustiza -  
 Angel Larrañaga - Fermin Muñoa - Victor Ibarbia -  
 Juan Narbaiza eta Xanti Zabala.

Auk bere saioak binaka egin zituzten, ofiziyuak gai arturik. Batzuek erretratista eta neska gazte baten goraberak. Besteak, bizitza alaiki edo naigabez ikusirik. Urtain nola ote zan ohea, arrijasotzalle bezela edo ukabillari bezela. Tabernarien eta txikito edailearen arazoak agertuaz besteak. Biña bertso zituzten bakoitzak.

Gai berezi bana arturik, zortziak beste ekinaldiari eraso zioten, zortzi auetatik lau aukeratzeko. Bakandu aldi ontan, Aizpurua, Larrañaga, Zabala eta Narbaiza gelditu ziran azken saiorako.

Azken sasoiari auk izan ziran gaiak, danentzako berdiñak.

«Bertsolari guztien maixua Xenpelar.....» (Asiera emanda)

Mutil gazte bat, beartsua, bere asmo onez betea, ikasi naiean dabil alderdi batetik bestera joaz, baño ez du laguntzarik arkitzen. Au ikusiaz lapurreta egiten du eta ortan ari dala, arrapatu egiten dute. Juezaren aurrean zer aldespen edo defenza egingo zenuke? Bi gai auk laukote onek oso ondo erabilli zituau, bañan ala ta guziz ere, epai maiekoak Zabala eta Narbaiza'ri beste gai berezi bat ipiñi zieten txapelduna aukeratzeko.

Aurkezlariak kartera bat eskuan arturik, kartera ari bakoitzak iruna bertso botatzeko eskatuaz. Biak oso ondo egon ziran, bañan gaia obeto erabilli zuan Narbaiza'k eta bera gelditu zan garaille.

Azkenik, txapeldunentzat Valverde senideak eskeinitako txola edo kopa artzerakoan, bertso au bota zuan irabazleak:

Azaldu nai det umilla  
 Ondo aditu dedilla  
 Errenderira etorriya naiz  
 Bi gauza politen billa  
 Kopa ederra eskuan daukat  
 Orain nai det neskatilla.

Jai benetan ederra ta gogoangarria danontzat. Eun ta amabost bertso bota zituzten bertsolari gazte auk. Gai onak, ondo erabilliak eta bear bearrezko zana, oñarri berriko, kimu berriko bertsolari zugaitzekoak.

Jarrai aurrera emen izan ziñazten guziak. Oraingo al-dian garaille izan ez ba zerate ere, ez alde batera utzi, eutsi zuen doai berezi orri.

Eta zuk Anton —zeru goi ortatik egun orretan saio-keta eder ura entzun zenduela zigur jakiñi—, ar zazu gure omenaldi au eta Xenpelar lagun dezula eskatu Jainkoari bertsolari gazte auentzat babespen berezi bat, jarrai dezaten Euskal-erriaren onerako, urretxindorren antzera abes-tuaz, erriz erri azalduaz bertsolarien nortasun berezia.

Jai ontara bertsolari auk etorri zitzaizkigun:

- Pedro Aizpurua - Zestuakoa
- Eusegio Alustiza
- J. R. Beitia - Eskoriatza
- Jabier Ceberio - Isasondo
- Nicolas Cendoya - Azpeiti
- José M. Donosti
- Koldo Etxabe
- José M. Etxaluçe - Idiazabal
- Victor Ibarbia - Berrobi
- Francisco Iribar
- Angel Larrañaga - Azkoiti
- Jose A. Lazcano - Donosti
- Juan Loyola - Arrasate
- Jose Makazaga - Zarauz
- Juan M.<sup>a</sup> Mugica - Legorreta
- Juan Narbaiza - Eibar
- Jose Luis Oyarzabal - Errenderi
- Javier San Miguel - Eskoriatza
- Fermin Muñoa - Berrobi
- Juan Urriolabeitia - Mutriko
- Xanti Zabala - Lezo

#### EPAI MAIEKOAK:

- Antonio Zabala - S. J.
- Fernando Artola («Bordari»)
- Inocencio Olea
- Idazkari: Xabier Olaskoaga